

Ekitaldiak, errepasorako zerrenda:

EKITALDIAREN ANTOLAKETA-FASEA

- Ekitaldiaren hizkuntza(k) zein izango den/diren erabaki dugu, kontuan hartuta: entzuleak, eragin-eremua, etab.
- Hizlariak aukeratzeko orduan, hizkuntza-gaitasuna ere kontuan hartu dugu.
- Kanpo-zerbitzua kontratatzerakoan hizkuntza-irizpideak aintzat hartu ditugu: harrera, mokadurako zerbitzariak, publizitatea, etab.
- Eslogana edo testu nagusia pentsatzerakoan, euskaratik ere pentsatu dugu. Ikus publizitatearen atala.
- Ikus-entzunezkoren bat egiten bada aurretik, hizkuntzak aintzat hartu ditugu. Ikus-entzunezkoen atala.
- Aldibereko itzulpena edo bestelako sistemarik behar den aztertu dugu.

EKITALDIAREN ZABALKUNDEA

- Izena emateko txantiloien hizkuntzak bat egiten du ekitaldiko hizkuntzekin.
- Izena emateko orduan hizkuntza-beharrei buruz galdetu dugu.
- Ekitaldiaren hizkuntza jakinarazi dugu.
- Sare sozialetako hizkuntzen estrategiak bat egiten du ekitaldiko hizkuntzekin. .
- Gogobetetze-inkestan hizkuntzen kudeaketari buruz galdetu dugu.
- Komunikabideekin harremetarako hizkuntzen erabilera aintzat hartu dugu.

EKITALDIAREN GARAPENA

- Hitzaldietan hizkuntzak nola erabliko ditugun erabaki dugu.
- Hizlariak nahiko gaitasun dute edo trebatu dira.
- Aurkezpenak edo laguntzarako euskarrietarako hizkuntzen erabilera erabaki dugu.
- Lantalde txikiagoak egingo balira, hizkuntzen alderdia ere aztertu da.
- Galderak nola erantzungo diren erabaki da.

- Ekitaldian parte hartuko duten guztiek argi dituzte hizkuntzen erabilerarako jarraibideak (komunikazio-teknikariek, harreragileek, dinamizatzailleek, hizlariek, etab.).

IRIZPIDEAK

- Alor honetan parte hartzen duten profesional guztiek argi dituzte erakundearen estrategia eta hizkuntza-irizpideak.
- Hizkuntzen erabileraren jarraipena eta ebaluazioa egiten dugu, eta hobetzeko neurriak ezarri.